

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Gaubeako enpresa berriei laguntzak emateko 2026ko ekitaldiko deialdia

Udalbatzak, 2026ko otsailaren 16an balio osoz egindako osoko bilkuran, onespena eman zien Gaubeako enpresa berriei laguntzak emateko deialdiari eta haren oinarri arautzaileei. Horren gainean hartutako hirugarren erabakia betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2026ko irailaren 14a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Gaubeako enpresa berriei laguntzak emateko udal programa 2026ko ekitaldian arautzen duten oinarriak

1. oinarria. Xedea eta aplikazio eremua

Oinarri hauen xedea da arautzea Gaubeako udalerrian enpresa jarduerak ezartzea, eraberri-tzea, modernizatzea eta berritzea finantzatzen laguntzeko Gaubeako Udalak eman ahal dituen laguntza ekonomikoen deialdia, eta arautzea dirulaguntzak emateko modua, modu aktiboan laguntzeko enplegua sortzen duten enpresa proiektuak abiarazten.

Laguntza ekonomiko horiek itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira.

2. oinarria. Onuradunak

Laguntzen onuradun izan ahalko dira azken bi urteetan udalerrian enpresa ekimen bat abia-razi edo hasi duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak eta ondasun erkidegoak, helbide fiskala Gaubean daukatenak.

3. oinarria. Onuradunen betekizunak

Laguntzen onuradunek honako hauek bete beharko dituzte:

- Gaubeako udalerrian enpresa jarduera bat hasi beharko dute edo azken bi urteetan hasitako jarduera batekin jarraitu.
- Enpresaren establezimendua Gaubeako udalerrian izan beharko dute.
- Enpresa proiektua sustatu duten pertsonetako bat, gutxienez, Gaubeako Udalean erroldatuta egon beharko da eskaera egiten den unean.
- Enpresak ezin ditu 10 langile baino gehiago izan.
- Dirulaguntza honen onuradunek egunean izan beharko dituzte administrazio publikoekiko zerga betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekikoak ere.
- Enpresak, gutxienez, 3 urtez jarraitu beharko du lanean.

4. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Diruz lagun daitekeen inbertsioaren gehienez % 40koa izango da dirulaguntza. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da inolaz ere izan 10.000,00 eurotik gorakoa.

5. oinarria. Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Laguntza lerro honetan, honako jarduera hauek jaso ahal izango dute dirulaguntza:

- Negozioaren lokala alokatzeko kuotak.
- Negozioaren lokala egokitzeko lanak.
- Jarduerarekin lotutako ekipoak, altzariak, makinak eta tresnak erostearen gastuak.
- Web orriak sortzearen gastuak.
- Tresneria informatikoa eskuratzearen gastuak.
- Bezeroei zerbitzua emateko WIFI sareak instalatzearen gastuak.
- Merkataritzako errotulu elebidunak (euskara-gaztelania) jartzearen gastuak.
- Gizarte Segurantzarako kotizazioak, bai eta kontingentzia arrunten ziozkoak ere.
- Proiektua martxan jartzearen ondoriozko gastuak (eraketa gastuak, erregistroa, proiektu teknikoa...)

Gastu horiek diruz laguntzeko modukotzat hartuko dira, baldin eta enpresak jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman eta gehienez urtebeteko epean sortu badira eta negozioaren jardunarekin lotura zuzena badute.

Aurreko ekitaldian dirulaguntza bat jaso duten eskatzaileek bigarren eta azken dirulaguntza bat eska dezakete deialdi honetan, inbertsio gastu berrietarako edo enplegua sortzeko inbertsioetarako, betiere deialdiak ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Honako kontzeptu hauengatik ez da dirulaguntzarik emango:

- Garraio kostuengatik, aseguruengatik, administrazio baimen, lizentzia eta antzekoen tasengatik, eta zerga eta tributuoak ordaintzeagatik.
- Garraiorako elementuak, telebistak eta lokalak erosteagatik edo eskualdaketa eskubideengatik.
- Mantentze lanen edo konponketen edo piezak ordeztearen gastuengatik.
- Bulegoko materialen, tresnen, baxeraren, mahai tresnen edo antzekoen gastuengatik.
- Finantza alokairuko formulen edo antzekoen bidez egindako inbertsioengatik.
- Berariaz "Diruz lagun daitezkeen merkataritza lokaleko ekipamenduen" zerrendan jaso ez den beste edozein aktibo erosteagatik.
- Hornidura gastuengatik (argia, ura, telefonoa...).

6. oinarria. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuak ematen dituzten eta kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten beste batzuekin.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren zenbateko osoak ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez bakarrik, ez beste laguntza, dirulaguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

7. oinarria. Aurrekontu baliabideak

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak 2026. urterako udal aurrekontuko 433 471000 "Enpresa ekimenetarako dirulaguntzak" partidaren 10.000,00 euroen kargura finantzatuko dira.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera hasiko da.

8. oinarria. Eskaerak aurkeztea

Eskaerak eta nahitaezko dokumentazioa Gaubeako udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dira (Jesus Guinea arkitektoa kalea 46, 01426 Uribarri Gaubea). Aplikatzekoa izango da, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4. artikuluan xedatutakoa.

Eskaera aurkezteak berekin dakar oinarri hauen edukia onartzea.

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 31n amaituko da.

9. oinarria. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Laguntza eskaerak deialdi honen eranskinean jasotako eskabide eredu normalizatuan aurkeztu behar dira, enpresaren edo entitatearen ordezkariak daukan pertsonak sinatuta, agiri hauekin batera:

- Eskaera orria eta zinpeko adierazpena: I. eranskina.
- Pertsona fisikoa izanez gero: NANaren fotokopia.
- Pertsona juridikoa izanez gero: IFKren fotokopia.
- Enpresaren eratze eskriturak.
- Ordezkatzeko ahalmenak.
- Ordezkatzeko ahalmenak dituen pertsonaren NANA.
- Enpresak Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Enpresak Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dauzkala egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.
- Soldatapeko langilerik izan ezean: autonomoen kuota ordaindu izanaren azken hileko agiria.
- Soldatapeko langilerik edukiz gero: azken hileko TC2.
- Memoria deskribatzailea, gutxienez honako informazio hau jasotzen duena:
 - Enpresaren eta lokalean egiten den enpresa jardueraren deskribapena.
 - Egindako inbertsio edota eraberritzeen deskribapena.
- JEZeko alten eta bajen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.
- Zinpeko adierazpena (eskaera orri normalizatua).
- Laguntzen deialdi honen oinarriak ezagutu eta onartzearen adierazpena.
- Dirulaguntza publikoen itzultze edo zigor prozeduretan ez egotearen zinpeko adierazpena.
- Erakunde eskatzailearen zinpeko adierazpena, adierazten duena ez zaiola ezarri administrazio edo zigor arloko zehapenik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko ezintasunik ezartzen dionik, eta ez daukala horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arrazoien ziozko bereizketatik ere.
- Beste erakunde publiko edo pribatu batzuei ekintza bererako eskatutako edo haiengandik jasotako laguntzen zinpeko adierazpena.

10. oinarria. Akatsen zuzenketa

Dirulaguntza eskaerak ez badituzte betetzen oinarri hauetan eskatutako baldintzak, edo nahitaezko dokumentazioa ez badute, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoarekin, interesdunei eskatuko

zaie 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Hala-ber, jakinaraziko zaie ezen, halakorik egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela eta beste izapiderik gabe artxibatuko dela, aipatutako legeko 42.1 artikuluan jasotako ondorioekin.

Eskaera ez da bideratutzat joko, harik eta behar bezala beteta eta espedientea osatuta egon arte. Entregatutako dokumentazioa erregistratu egin beharko da espediente dagozkion ondorioetarako osatzeko.

11. oinarria. Prozedura

1. Norgehiagoka bidez emango ditu dirulaguntzak udalbatzak, informazio batzorde orokorrak proposatuta. Proposamena egiteko, batzordeak egokitzen jotzen duen aholkularitza teknika eskatu ahal izango du.

2. Informazio batzordea hiru hilean behin bilduko da, dagokion aldia aurkeztutako proposamenak ebazteko.

3. Informazio batzordeak ezin izango du inola ere proposatu oinarri arautzaileetan ezarritakoa betetzen ez duten dirulaguntzak ematea.

Gaubeako Udalaren iragarki taulan argitaratuko da emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda. Zerrenda horretan laguntza zergatik ezetsi edo eman ez den ere adieraziko da. Argitaratzeko orduan, honako hauetan xedatutakoa beteko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikulua.

12. oinarria. Erakunde onuradunen betebeharrak

Laguntza hauen erakunde onuradunen betebeharrak hauek izango dira:

1. Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatuz gero, udalari horren berri ematea.

2. Laguntzaren eskaera ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio edota dokumentazio osagarri oro ematea Gaubeako Udalari.

3. Ebazpen proposamena eman aurretik, zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketa egunean dutela egiaztatzea.

4. Gaubeako Udalean zorrik ez izatea.

5. Laguntzaren xede den establezimenduan gutxienez hiru urtez jardutea jarduera ekonomikoan, dirulaguntza ematen den egunetik aurrera. Establezimendua adierazitako epea baino lehenago itxiz gero, enpresa onuradunak itxiera horren berri eman beharko dio udalari eta itzuli egin beharko du emandako dirulaguntza, jarduera bertan behera utzi den egunetik dirulaguntza eman eta hiru urteak betetzeko gelditzen den denboraren proportziozko zatian. Salbuespen gisa, nahiz eta hiru urteko epe hori igaro gabe egon, ez da eskatuko jasotako dirulaguntza itzultzea, baldin eta negozioaren titularra larriki gaixorik badago edo hil bada.

6. Laguntzaren onuradunak enpresa proiektua sustatu duen pertsonaren eroldari eutsi beharko dio, gutxienez 3 urtez, etenik gabe.

7. Pertsona onuradunaren betebeharra izango da eskaerako hasierako baldintzei gutxienez hiru urtez eustea.

13. oinarria. Ordaintzeko era

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, dirulaguntzaren xede diren gastuak faktura originalen edo fotokopia konpultsatuen bidez justifikatu eta gero, eta betiere goian adierazitako baldintzak bete badira.

Ordainagiriak aurkezteko gehieneko epea 2027ko otsailaren 28a izango da. Frogagiriak aurkezte ez badira, enpresari ez zaio dagokion dirulaguntza proportzionala ordainduko.

14. oinarria. Dirulaguntzak aldatzea

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik badago, hura emateko ebazpenak aldatu ahal izango dira. Edonola ere, aldaketek oinarriotan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte beti.

15. oinarria. Laguntzak itzultzea

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira eta dirulaguntza ordaindu zenetik dagozkion legezko interesak eskatuko dira, baldin eta horien onuradunek urratu egiten badituzte oinarri hauetan, dirulaguntza esleitzeko ebazpenean eta aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak; horrez gain, ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak ere gauzatuko dira.

16. oinarria. Ordezko araubidea

Oinarri hauetan jaso gabekoetan, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko araudia aplikatuko dira, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea ere.

17. oinarria. Konfidentzialtasun klausula

Gaubeako Udalak, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak erakundearen titulartasuneko datu pertsonalen fitxategi automatizatueta gorde ahal izango dituela. Helburua jardueren berri ematea eta jarduerak sustatzea da. Interesdunek, nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurkaratu ahal izango dituzte, udaleko informazio eta erregistro zerbitzuaren bidez.

18. oinarria. Indarrean jartzea

Oinarri hauek eta laguntza deialdia ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko dira indarrean.

I. eranskina

Izen-abizenak NANA:

Honako honen ordezkartzan (enpresaren edo erakundearen izena):

Izen komertziala:

Egoitza soziala, fiskala edo lantokia:

Udalerrria: Posta kodea:

Probintzia:

Telefonoa: Posta elektronikoa:

Web orria:

Enpresak egiten duen jarduera:

JEZ: Altaren data:

Enpresa ekimenak sustatzeko asmoz Gaubeako Udalak onetsitako laguntzen deialdiari dago-
kionez,

adierazten dut

1. Ezagutzen eta onartzen ditudala enpresa berrien sorrera sustatzeko laguntzen deialdi honetan parte hartzeko bete beharreko baldintzak ezartzen dituzten oinarriak.

2. Ziurtatzen dudala enpresak eskaeran eman dituen datuak egiazkoak direla.

3. Dirulaguntzaren eskaera aipatutako laguntzen oinarrietan eskatutako baldintzak betez egin dela.

4. Laguntza hau eskatzeko nahitaezko dokumentazio guztia erantsi dudala.

5. Jasotako dirulaguntzaren kargura egindako gastu eta ordainketen egiaztagiri guztiak, agiri elektronikoak barne, erakunde onuradunaren esku egongo direla 2029. urtera arte, dagokion administrazioak kontrol eta egiaztapen jarduerak egin ahal izan ditzan.

6. Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzearen, baimena ematen dudala nire datuak Gaubeako Udalak laguntzak kudeatzeko asmoz ezarritako fitxategian sartzeko eta datuok eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak baliatu ahal izango ditudala udalaren beraren bidez.

Horrenbestez, Gaubeako Udalari eskatzen diot

Nire eskaera onar dezala eta laguntza hauen deialdiko oinarrien arabera dagokidan laguntza eman diezadala.

Gaubea, 2026ko aren(a).

Sinadura eta enpresaren zigilua.

II. eranskina

Izen-abizenak NANA:

Honako honen ordezkartzan (enpresaren edo erakundearen izena):

Izen komertziala: IFZ:

Adierazten dut

☐ Ezagutzen eta onartzen ditudala Gaubean enpresa berriak sortzea sustatzeko laguntzen deialdi honetako oinarriak.

☐ Ordezkatzen dudana enpresak Gaubean duela helbide fiskala, soziala edo lantoki bat.

☐ Ez nagoela dirulaguntza publikoak itzultzeko edo zigortzeko prozeduretan.

☐ Ez zaidala ezarri administrazio edo zigor arloko zehapenik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko ezintasunik ezartzen dionik, eta ez daukala horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu arazoien ziozko bereizketagatik ere.

☐ Egunean daukadala Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

☐ Laguntza eskaera honez gainera, helburu bererako laguntzak eskatu dizkiedala erakunde publiko edo pribatu hauei edo haiengandik dirulaguntzak jaso ditudala:

ESKAERA EGUNA	ERAKUNDEA	PROGRAMA	ZENBATEKOA GUZTIRA	LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

☐ Agiriak eta eskaeran emandako datuak egiazkoak direla.

☐ Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen direla.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau egiten dut.

Gaubea, 2026ko aren(a).

Sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua.